

Bost hitzaldi krimenari eta histeriari buruz



Bost hitzaldi krimenari eta histeriari buruz

Jatorrizko izenburua: *Cinq leçons sur le crime et l'hystérie*

Egilea: Patricia Parry

Itzultzailea: Itziar Otegi

Argitaratze urtea: 2009

Argitaletxea: Alberdania

MIKEL GARMENDIA

Bi istorio paralelo aurkituko ditugu eleberri honetan elkargurutzaturik, fikzioaren eta errealitatearen artean mugitzen direnak. Batetik, XIX. mende amaieran, Sigmund Freud parisa doa Charcot irakasle ospetsuaren histeriari buruzko lezioak entzutera. Charcotek laguntza eskatuko dio hainbat krimen argitzeko. Bigarrenean, 2008an Frantziako Tolosan egiten ari diren psikiatriari buruzko biltzar batean, Berger irakasle ezaguna izango da mende bat lehenago Charcotek bete zuen eginkizuna bere gain hartuko duena, oraingoan ere biltzarkide bat hil baitute –Chris Vaugeois- eta harreman estuak baitaude orduko krimen haien eta gaur egungoaren artean.

Patricia Parry-k, psikiatra bera ere, nobelatu egingo dizkigu gertakari historiko batzuk. Progresioan egiten dute aurrera ikerketek eta, horrekin batera, baita psikoanalisiaren historiak ere, XIX. mendean sortu baitziren gizakiaren espiritua konprenitzen saiatzeko zientziak. Zinismoa, intolerantzia, aiherkundera eta antisemitismoa aurkituko dugu etengabe giroan. Zientziaren aurrerabidearen historia zoragarria, histeriari buruzko lehengo eta gaurko ikuspegiak ulertaraziko dizkiguna, bost leziotan egituratua, beti ere judu errariaren mitoaren presentziaren inguruan.

Joko baten gisan aurkezten dizkigu egileak iragana eta oraina. Oraingo pertsonaiek eta ikerketek iraganekoetara baikaramatza etengabe, beti ere orduko eta oraingo hiltzailearen edo hiltzaileen bila gabiltzala, paraleloan garatzen den intriga horrek bakerik ematen ez digularik, harik eta amaierako ezustera heltzen garen arte.

Eleberri beltza egituraz, oinarri historiko-zientifiko batean ehundua, dibulgazio ez kultistaren muge barruan mugitzen dena. Erritmo biziko kontakizuna, trama jariakor bezain aberatsak eta pertsonaia eta egoeren deskripzio bikainak, euskerazko bertsioan Itziar Otegi itzultzailearen eskutik heldu zaizkigunak, lexiko ondo aukeratu batez eta testuari ondo kurriarazten dion joskeraz.